

2022_{ko}

ONDARROAKO
JAIAK Andra Maixak

Abuztuaren

11tik 17ra



**euskaraz
bizi
nahi dūt**



**EUSKAL PRESO
ETA INESLARIAK
ETXERA**



ONDARRUTARROK, AGURI!

↓
Alkatearen agurra

Zain eta zain.
Holantxeik eon gaz
urte bixin Andra
Maixak allateko. Baine tran-
kil, hamen daz! Alla diz!

Planak prest dakazu?
Urte bixin zemat gauza
botazuz faltan? Leokadi sare
sozialan bitxartez, tanborra-
daik bez, Plazagaineik bez,
tiobiboik bez, pasakalle eta
dantzaik bez, lagunakin
batu eta goxetik gabearte
ondo pasati, kuadrilla egu-
nik bez, atun erreike eta mar-
mitxakoik bez, mahunezko
alkondari be falta... Baine
listo! Hamen dakauz danak.
Ixe ezta geatzen.

Batzuk parrandako,
beste batzuk euran urteroko
ohitxurak berreskuratzeko,
beste batzuk egunez eta
gabaz kalik hartzeko, eta,
beste batzuk, antolaketa eta
boluntaxo lanetan ibiltzeko.
Danak dakarre leku
Andramaixetan eta danok
ein bihir geunke danetik
bixkat. Eztozu uste? Danok
bixkat eindde jai ederrak

pasakouz. Antolaketa lane-
tan, txosnan txandi etxen,
herriko taldiai esko bat
botaten... beste aldetik be
ederto demasin pasaten diz
Andramaixak eta. Jaixak
herrixik herrixantzat, eta
kanpotik datozenantzat.
Danok gaz ondo etorrixak
eta danontzako da leku
Ondarruko kalitan.

Laga alde batea egunero-
ko buruko minak eta goza-
tu. Zeure era, zeuk nahi
dozun modure,
Andramaixetan danetako
tartik daz eta. Ondo pasa,
baine ez pasa. Errespetuz
jokatu. Gogun euki
Ondarrun eztouela ixelako
erasoik onartzen, eta hola-
kon bat gerta ezkie aurrin
eongoazela. Andramaixetan
gerta leikezen eraso matxis-
tai aurre eitteko prestatuta-
ko protokoluai eta erasun
aurkako telefonuai nahi
dotset azpimarra bat ein:
erabiltzeko beharrik ez
eukitxi seinale ona ixango
litxake, baine zeoze ikusten

edo jasaten badozu, ez euki
dudaik: esan eta segixan ipi-
niko da martxan protokolu.

Gogun hartu falta dize-
nak, desherrixan dazenak,
gure artin eztazenak ero
azkanengoko
Andramaixetan alun zeu-
kazun hori eta aurtin zori-
txarrez egongo eztana.
Gozatu errespetuz eta goza-
tu euskeraz, geurik aldarri-
katuz, inguru zaindduz eta
herrixaz garbi jokatzu!

Ondo pasa jaixak! Eraso
matxistaik eztou onartuko!
Hondakinak zamarpoture,
eta ez behangainea! Bixi
euskeraz! Ta ahaztu baik,
euki gogun: zuk ondo pasa-
teko, beste askok biharra
ein bihir dabela, beraz,
errespetuz jokatu!!!

Alkarrenganako errespe-
tuaz... **Bixi topea andra-
maxaki! GORA Ondarru
eta ondarrutarrak!**

**Zunbeltz
Bedialauneta Ibaibarriaga
Ondarroako alkatea**

AURTEN BAI!!! ONGI ETORRI ANDRAMAIXAK!



↓
jai Batzordearen agurra

Baietz, baietz, aurtan baietz, Andramaixak dakauzela! On dala urte bi mamarrun konture hartu gendun disgustuaz, dana bertan behera. Eta ixez, beste hainbeste. Andramaixak falta. Asko kostata eta danon alkartasunaz eta alkarzaindduzemoten dau halako baten hasi gazela zulo baltzetik gitxikegitxike bada be buru ataten. Eta bai, aurtan bai eukiko douzela danok merezi douzen jaixak! Geure jaixak! Ondarruko Andramaixak!

Aurreko urte bixetan Andra Mari jairik ospatzeik euki ez douen arren, kultur batzordiai eta Ondarruko kultur talde eta norbanakuai esker *Kultur*

Uheri deitxutako ekimen polit bat aurea botateko kapazak ixan gaz. Bertan kultur munduk urte bi honetan hartu daben jipoi kontutan hartuaz, Ondarruko artistai lehenasune emoten ahaleginddu gaz, inguruko beste talde eta artistakin egitarau politxak osotuaz. Ezta erreza ixan, baine kulturi ezta geldikeon Ondarrun, pandemixa baten erdixan bez. Herrixe artistaz beteta daukau!

Andramaixak ixan bihir dizen modun ez ospatu arren, urte askotan martxan darauzen ekin tzak euki douz: txistulaxan eta Artelanen kalejiri, Atako bandi eta,... zelan ez zan eongo bera ba?! Leokadi!!!

Hori bai, a zelako nearrak bota zitxuzen herrire baja eta ondarrutarrik ez banin ikusi! Jenteik bez, txosnaik bez, bolanderaik bez, marmitxako lehiaketak bez, kontziertoik bez! Maskarillak bakarrik!!! Nahiku ez, eta gainea, golpin pasa birixan zan mundo digitalea. Kotxaue, nahidanbeste urtin soinekoik be ez dabenin aldatu... baine Leokadi beti prest Andramaixetako!

Andramaixak antolatzi ezta sekule bihar erreza ixan, kontu asko euki bihir dizelako kontutan. Eskaintza zabala emoti, ekitaldi batek besti ez zapaltzi, musikak alkar ez oztopatzi, danon alkarbizitzi antolatzi... Batai diar ein, bestiai diar ein, hau erabaki, besti lotu... Baine ho-



rrren plangintza guztio-
rrren atzin dan kultur ba-
tzordiai eta herriko talde
eta eragiliai esker aurten
be egitarau eder bat osatzi
lortu dou. Pentsaten dou
merezi douzelajai eder ba-
tzuk! Ez dakau ixelako du-
daik, herrixan gelditzen
zazenok edota kanpotik
etorriko dizenak gustoko
dozuen ekingintza edo ekital-
dixak topako dozuezena,
betikuk zein barrixak, kul-
turalak, kirolekuk, zaato-
tsuk, bustitxekuk, dan-
tzan eittekuk... baine da-
nak gozatzekuk. Urtin

behinixaten di Andrama-
xak, e?! Gozatu! Parrandi
ein ezkie be, hurrengo
egunin altza ta segi barriro
gozaten. Andramaixetan
ezta deskantsoik!

Eskerrik asko jaixak
antolatzen esko bat bota
dozuen guztiai. Gogun
euki danok ondo pasateko
batzuk biharrin dabizela,
ta gehixenetan boronda-
tez. Errespetuz jokatu.
Eraso matxistaik eztou
onartzen. Erasoik jasan
edo ikusten badozue, dei-
txu udalak horretxetako

ipini daben telefonure.
Erasuk eta erasotzailik
gure artin eztauke lekoik!
Gauzak argi.

Alkar zainddu eta al-
kar errespetat. Inguru be
zainddu eta zamarrak za-
marpoture.

Ondo-ondo pasa jai-
xak. «Nienudatorren urte-
kun zain eotea... Baator
atun erre usaine! Ia Leoka-
di! Bazatzo ero ze? Zeure
zain gaz!»

Gora Ondarru!
Gora andramaxak!





→
Egitaraua

abuztuak 12, barikua *Txintxirrika* *Eguna*

• **16:00.**

Zubi Zaharraren aurrean,
UMEENTZAKO KUKAÑA.
Ondarroako Udala.

• **17:00.**

Latxanbre Plazan,
BURUHANDIEKIN
JOLASEAN Artelanen
eskutik. Ondarroako Udala.

• **17:30.**

Latxanbre Plazan,
UMEENTZAKO
TXOKOLATADA
Artelanen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **18:45.**

Alamedan,
HAUR IKUSKIZUNA:
TXOTXONGILO
BERTSOLARIAK,
Toni La Sal-en eskutik.
Ondarroako Udala.

• **19:15.**

Udal frontoian,
ONDARROAKO PALA
TXAPELKETAREN
FINALAK Barnetegixan
eskutik. Ondarroako Udala.

• **22:00.**

Musika plazan.
KONTZERTUA: PIZTIAK.
Ondoren,
DJ KOL TECNO FEST.
Ondarroako Udala.





• **11:00.**

Gaztetxean,
KAMISETA
BANAKETA.

• **12:00.**

Kortxeletik
Gaztetxera,
TURUBIREN
JAITSIERA.

Ondoren,
KARROPOTEOA.
Ondarroako gazteak.

• **15:00.**

Plaza Gainean,
GAZTE BAZKARIA.
Ondarroako gazteak.

• **17:00.**

Herrian zehar,
GAZTE JOKOAK.
Ondarroako gazteak.

• **17:40.** Badian,
TRAINERUEN
ESTROPADAK
EUSKOTREN LIGA:
XXXVIII. Ondarroako
Bandera - Cikautxo
Sari Nagusia. Ant.:
Ondarroa Arraun
Elkartea. Lag.:
Ondarroako Udala.

• **18:13.** Badian,
TRAINERUEN
ESTROPADAK
EUSKOLABEL LIGA:
XXXVIII. Ondarroako
Bandera - Cikautxo
Sari Nagusia. Ant.:
Ondarroa Arraun
Elkartea. Lag.:
Ondarroako Udala.

• **18:00.**

Musika Plazan,
TXOSNA IREKIERA
eta ERROMERIA.
Musika Plazako
txosnak.

• **19:00.**

Kafeatzean, GAUR
TXOSNA ZABALIK!
Danak etxea!

• **19:00-22:00.**

Musika Plazan,
INDARKERIA
MATXISTARIK
GABEKO GUNEA.
Ondarroako
Emakumeen Udala
Berdintasun
Kontseilua.

• **22:00.**

Ibaiondotik hasita
eta kalerik kale,
TANBORRADA
Kresala Kultur
Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **Ondoren,**
Musika Plazan,
BASAGAIN
SOUND SYSTEM.
Ondarroako Udala.





Egitaraua

abuztuak 14, domeka Amnistia Eguna



• 10:00.

HERRIKO
TXISTULARIEN
KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• 11:00-15:00.

Musika Plazan,
MAMARRAZOKI
Artisau Azoka.
Izena emateko: 688 63
72 83. Musika
Plazako txosnak.

• 13:00.

Alde Zaharretik
Kafeatzera,
MANIFESTAZIOA:
«Askatasuna!»
lemapean. Sortu.
Amaieran,
BRINDISE FALTA DI-
RENEN OMENEZ.

• 17:00.

Musika Plazan,
MEIXENDA +
IKUSKIZUNA. Musi-
ka Plazako txosnak.

• 18:00.

Zaldupe Futbol
Zelaian, FUTBOL
PARTIDUA. XLIV.
ANDRA MARI
SARIA: Aurrera K.E. –
Mutriku F.T.

• 18:45.

Antiguan,
SALBEA.

• 19:00-23:00.

Kafeatzean,
ERROMERIA:
LUHARTZ.
Ondarroako Udala.

• 19:30.

Alde Zaharretik hasi
eta kalerik kale,
KALEJIRA ORKES-
TRA ELEKTROTU-
NAREN eskutik.
Ondarroako Udala.

• 00:00.

Musika Plazan,
KORTXELEKO MA-
MUEN JAITSIERA
eta IKURRINAREN
IGOERA. **Aurretik,**
KRESALAKO
BANDAREKIN
kalejira; **ondoren,**
KORTXELEKO
MAMUEKIN
KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• 00:30-02:30.


Kafeatzean,
ERROMERIA:
LUHARTZ
Ondarroako Udala.

• 02:30.

Musika Plazan,
DJ JUSEFF
ETA DJ SARGORI.
Ondoren,
ZUMBA ETA
STREETPEASE.
Musika Plazako
txosnak

• 04:00.

Beikozinatik
Musika Plazara,
PANTALOI ETA
KANTZONTZILLO
KARRERA.
Musika Plazako
txosnak.





abuztuak 15, astelehena *Andra Mari Eguna*

• 10:00.

Antiguako santutegian,
MEZA NAGUSIA.

• 10:00.

HERRIKO
TXISTULARIEN
KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• 11:00.

Gaztetxetik hasita,
MEZA ELEGANTI.
Ondarroako Gazteak.

• 12:00-14:30.

Itsasaurren,
UMEENTZAKO PARKEA.
Ondarroako Udala.

• 12:45.

Itsasaurre Plazan,
AURRESKUA.
Ondarroako Udala.

• 13:00.

Itsasaurre Plazatik hasita
eta kalerik kale, EINGO!
rekin KALEJIRAN
kantan eta dantzari.
Ondarroako Udala.

• 14:00.

Gaztetxean, LUNTXA.
Ondarroako Gazteak.

• 16:00.

Gaztetxetik Musika
Plazara, KARROPOTEOA.
Ondarroako Gazteak.

• 17:00.

Musika Plazan,
ARDAU KATA eta ondoren
ESKU PILOTA PARTIDAK
IKUSTERA!!!
Ondarroako Gazteak

• 17:30.

Frontoian, ESKU
PILOTA PARTIDAK,
Markina-Xemeingo Esku
Pilota Taldearen eskutik:
BENJAMINAK, ALEBI-
NAK, INFANTILAK,
KADETEAK, JUBENILAK,
EMAKUMEZKOAK ELITE
ETA GIZONEZKOAK.
Ondarroako Udala.

• 17:30-20:00.

Itsasaurren,
UMEENTZAKO PARKEA.
Ondarroako Udala.

• 19:00.

KALE ANIMAZIOA:
Artelaren erraldoiak
eta buruhandiak
Dunborts txarangarekin.
Ondarroako Udala.

• 19:00-23:00.

Kafeatzean,
ERROMERIA: TRIKIZIO.
Danak etxear!

• 21:30.

Gaztetxean, DJ SAIOA.
Ant.: Gaztetxea.

• 23:00.

Arrigorri hondartzan,
SU ARTIFIZIALAK
Piroteknia Zaragozanaren
eskutik. **Mesedez, irakurri
Segurtasun Neurriak
atala (23. orrialdean).**
Ondarroako Udala.

• 23:30.

Itsasaurre Plazan,
DANTZA EMANALDIA
DANTZARTERen eta
AUKERANen eskutik:
Hurrengo Geltokia.
Ondarroako Udala.



Egitaraua

abuztuak 16, martitzena Kuadrilla Eguna



• **10:00.**
HERRIKO
TXISTULARIEN
KALEJIRA.
Ondarroako Udala.

• **10:00.** Alamedan,
MARMITAKO
LEHIAKETA.
Ant.: Arranondo
Kultura Elkarte. Lag.:
Ondarroako Udala.

• **12:00-14:30.**
Itsasaurren,
UMEENTZAKO
PARKEA.
Ondarroako Udala.

• **12:00.**
Alde Zaharreen,
BERTSO SAIOA:
MIREN AMURIZA eta
MIREN ARTETXE.
Gai Jartzailea: IÑAKI
LERSUNDI
ARRIZABALAGA.
Ondarroako Udala.

• **13:00.**
Torrepetik hasita,
KALEJIRA Rockalean
taldearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **15:00.** Kafeatzean,
KUADRILLEN
BAZKARIA.
(Txartelak salgai
Turismo Bulegoan
abuztuaren 9ra arte).
Ondarroako Udala.

• **17:30-20:00.**
Itsasaurren,
UMEENTZAKO
PARKEA.
Ondarroako Udala.

• **18:00.** Frontoian,
HERRI KIROLAK
Mutriku Sokatira
Taldearen eskutik.
Ondarroako Udala.

• **18:00-22:30.**
Kafeatzean,
ERROMERIA: LAIOTZ.
Danak etxea!

• **19:00-22:00.**
Alde Zaharreen,
INDARKERIA
MATXISTARIK
GABEKO GUNEA.
Ondarroako
Emakumeen Udal
Berdintasun
Kontseilua.

• **20:00.**
Alde Zaharreen,
KALE DISKOTEKA
ELEPUNTO DJaren
eskutik.
Ondarroako Udala.

• **23:00.**
Itsasaurre Plazan,
KONTZERTUA:
SUTA GAR.
Ondarroako Udala.

Ondoren,
Musika Plazan,
KONTZERTUA.
Musika Plazako
txosnak.

Ondoren,
Musika Plazan,
ZUMBA TAILERRA,
PLAY-BACKa eta
JOLASAK. Musika
Plazako txosnak.



Egitaraua



abuztuak 17, eguaztena Arrantzale Eguna

• **10:00.** Kalerik kale,
HERRIKO TXISTULA-
RIEN KALEJIRA.
Ondarroako Udal.

• **12:00.** Kalez kale,
ERRALDOIAK
Artelanen eskutik,
HALA GERA dultzaine-
roek lagunduta.
Ondarroako Udal.

• **13:00.** Kalez kale,
ATAKO BANDAN
DANTZA SAIOAK
Kresala Kultur
Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udal.

• **18:00.** Kofradia
Zaharraren aurrean
eta Itsasaurren,
BENTAZAHARREKO
NESKA-MUTIKO
ALAIK.
Ondarroako Udal.

• **18:30.**
Kafeatzean,
EUSKAL ERROMERIA
Kresala Kultur
Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udal.

• **19:00.** Zubi Zaharra-
ren aurrean, KUKAÑA.
**Saria: 300€ irabazle-
arentzat.** Ondarroako
Udal.

• **Ondoren,** Zubi
Zaharretik dindilizka,
OIHALETA
TRAPEZIO
IKUSKIZUNA Artaka
Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udal.

• **23:20.** Zubi
Zaharretik eta kalez
kale, KORTXELEKO
MAMUEN KALEJIRA
Kresala Elkartearen
eskutik. Ondarroako
Udal.



• **23:45.** Musika
Plazan, KORTXELEKO
MAMUEN IGOERA
Kresala Kultur
Elkartearen eskutik.
Ondarroako Udal.

• **Ondoren,**
Musika Plazatik
irtenda,
ZEZENSUZKOA.
**Mesedez, irakurri
Segurtasun Neurriak
(23. orrialdean).**
Ondarroako Udal.

• **00:30.**
Musika Plazan,
KONTZERTUA:
ALU ZIKINAK eta
DJAK. Musika Plazako
txosnak.

• **00:30.**
Itsasaurre Plazan,
ERROMERIA
GOZATEGIrekin.
Ondarroako Udal.

↓ Andramaixan atzetik...

1327-2022

ONDARROAKO HIRIBILDUAREN



695.
urteurrena



irailak 24, zapatua
VI. Erdi Aroko Jaia

Goizeko **07:00**etatik aurrea,
Zubi Barritik Alameda bitartean, eta Kaleandi,
Pixape, Goiko kale eta Iperkalean zehar...
EGUN OSOKO JAIA!

**HASI
ARROPAK
PRESTATZEN, ETA
IZARAK ETA
HERRIKO
ARMARRIA
BALKOIRAKO!**

GUZTIOK ONDARRU

(Augustin Zubikarai/ Victor Ureña, 1960)

**Guztiok Ondarru
goratu daigun,
izan daiten harru,
lihor eta itsasun.
Gabiltza beti gu,
maite ta alaitsu,
kaletan oihu,
uretan orru,
beti goratzen Ondarru.**

Haixe berdietan
edo ipar baltzetan
begira Antiguari
gure izarrari.
Herrira etortzean
kale ta kantoietan
zorutzen pozez,
umore onez,
kresal usainez.

**Guztiok Ondarru
goratu daigun,
izan daiten harru,
lihor eta itsasun.
Gabiltza beti gu,
maite ta alaitsu,
kaletan oihu,
uretan orru,
beti goratzen Ondarru.**

Ur ertzean sortu
ta ur ertzean hil,
eta bitartean
kantuz dantzan,
orruz txanpan,
Ondarru maitale,
Ondarru kutun,
hala beti ekin daigun.

Itsasoan
nahi lihorrian
gure ametsak
beti Ondarrun,
berau lakorik ez dugu
guk inñun ezin inñun.

Itsasoan
nahi lihorrian
ezin ahaztu
gure Ondarru.
Kantauriko
pitxi harru
gure ONDARRU!